

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Exekutiboak I+G+i eta energia berriztagarrietara 4,37 milioi euro bideratzea proposatu du

*Gaurko bilkuran Foru Lege proiektua onartu du teknologia zentroei ezohiko kreditua emateko*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran 4.376.000 euroko ezohiko kreditua eta kreditu-gehiarriaren Foru Lege proiektua onartu du 2018an teknologia zentroek egingo dituzten ekintzei laguntza emateko.

Kopuru guzti horretatik, Exekutiboak 1.276.000 euroko aparteko kreditua emanen du ondorengo ekintzak garatzeko: 1.000.000 euro NAITEC Fundazioari bikaintasun zentroa gara dezan; 150.000 euro CNTArentzat bere Plan Estrategikoa ezartzeko eta 126.000 euroko transferentzia Garesko Udaletxeari Erminetako zentral hidroelektriko txikia eta bere ingurua berreskuratzeko. Bestalde, 3.100.000 euroko kreditu-gehiarria emango dio CENER -CIEMAT Fundazioari kredituen amortizaziorako.

Ezohiko kreditu eta kreditu-gehiarria Industria, Energia eta Berrikuntzaren zuzendaritza orokorrari emateko Foru Dekretuaren legea, Nafarroako Parlamentura helaraziko da, bertan eztabaidatu dadin, eta, hala bada, ondoren onartu dadin.